

IZARRAK ETA HAITZAK

Karlos Aretxabaleta

Aurkibidea

AURREHITZA. IZARREN ETA HAITZEN ARTEKO MUNDU BAT. Juanra Madariaga	9
1. IZARRAK. Mikel Zabalza	13
2. MAKARROIAK. Itziar Zabala	17
3. IRAN. Alberto Urtasun	22
4. BIDESARIA. Alex Txikon.....	27
5. HOZMINEZ. Juanjo San Sebastian	32
6. PLAZA. Ruben Saenz.....	37
7. THE COP. Alvaro Lopez & Bego Quevedo.....	41
8. HERRIKO BENTA. Pou Anaiak	46
9. ERDIBIDEAN. Edurne Pasaban	50
10. AZKEN ANARKISTA. Ekaitz Maiz	56
11. PUNKT & ROCK. Iñaki Marco.....	64
12. SOKABIDEAK. Aritz Aparicio eta Monica Loureiro	70
13. ANTIXINTXIKA. Zigor Iturrieta	74
14. BESTEAK. Alberto Iñurrategi.....	80
15. BI ANAI. Donnay Anaiak.....	81
16. ASKE. Iñi Basterra	86
17. GARMINA. Oihana Azkorbebeitia	90
18. HITZ GUTXITAN. Iker Arroitauregi	94
19. EGUNEROKOA. Irati Anda	96
20. HAITZAK. Imanol Amundarain	100
AZKEN OHARRA	107
HITZOSTEA. MENDIAK, BALOREAK ETA TRANSMIZIOA. Ioritz Gonzalez Lertxundi	109
ERANSKINA	113

harrapatu zituen ekaitzak, eta euren burua babesteko aukera gutxi izan zuten. Hala ere, hurrengo goizean, harrigarria bazen ere, adorea nonbait aurkitu eta aurrera egiteko erabakia hartu zuten. “Kabroi horiek gogorrek dira, gero”, pentsatu nuen nire kautan. Fermin eta biok, ordea, inbidia sanoak jota geunden arren, jaitsi behar izan ginen logistika arazoengatik. Ez geunden prest aurrera egiteko, horregatik, oinarrizko kanpalekura itzultzea zentzuzkoena zela otu zitzaigun.

Ordutik, tamalez, ez dakigu ezer gure lagunei buruz. Ondo egongo ote dira? Ezjakintasunak ernegatzen gaitu. Nahikoa genuke euren seinale txiki bat jasotzearekin geure beldurak baretzeko, geure odola epeltzeko. Zoritarrez ez dugu gure artean komunikatzerik. Momentuz, satellite bidezko telefonoak espedizio ofizialetan eta aparteko babes ekonomikoa jasotzen duten eskalatzaileen artean ikus daitezke, besterik ez. Ez dut harrotu nahi, baina azpiegitura apala izateak ez al dio meritu pitin bat ematen geure xedeari?

Kaka zaharra. Gustura emango genuke Ferminen eta biok oraintxe bertan bankuan dugun diru guztia gure lagunen berri izateagatik.

Orduak egin ditugu oinarrizko kanpalekuko kanpin-dendan atsedena hartzen, ahal izan dugun neurrian, behitzat, mendiak lehenengo eskalada egunean eman zigun jipoiaz errekupekatzen. Changabang eta Dunagiri mendien irudiak, tarteka, bahituta gauzka, baina ez gara paisaia edo paraje eder hortaz goatzeko gai. Zerbait falta zaigu. Norbaitekin partekatu behar ditugu ametsak eta ilusioak.

Putada bat da horrelako atakan egon behar izatea. Txarrena ezjakintasuna da, ezjakintasunak oroitzapen beldurgarriak elikatzen dituelako, eta, ondorioz, bidean galdutako lagunak aurpegiak datozkigu sarri asko. Ez dira gutxi elurak bere soineko zuriarekin betiko estali dituen lagunak. Gehienak gazte eraman zituen Mendiak, bizitza bizitzeko gogo ikaragarriak zituztela.

Gau honetan, hirugarren gaua, izarrak dagoeneko ez ditugu lagun, arerio baikik, jakin baitakigu gure lagunak zeru hotzaren estalpean lo egin beharko dutela, beste behin. Alegia, geure lagunak kanpin-denden epeltasunetik kanpo dauden gau bakoitzean zeruaren zama gero eta hurbilago egongo da euren buruengandik, eta izarrek, gehienetan konplize, oraingoan diamantez eginiko orratzak bailiran, erraz izoztu litzakete Jon eta Xabiren bihotzak guk zerbait egiten ez badugu. Hala, azkenean erabakia hartu dugu. Bagoaz. Bagoaz gure lagunak bila.

II

—Jon, zelan dauzkak atzamarrak?

—Nahiko eskas, Xabi. Eskuinekoa, behintzat, bart lokartu zitzaidaan lehenengoz. Hi, bestela, zelan?

—Atzamarrak ondo, behatz puntak minduta, akaso. Txarrena egarria duk, ordea. Egariak jota nagok motel! Ez zekiat beste gau bat igarotzeko gai izango naizen. Deshidratazioa nabaritzen hasi nauk.

—*Estamos jodidos...* Zelan ostia apurtu zaiguk su txikia ba? Surik gabe ezin izango diagu elurrik urtu eta.

—Uste diat niri apurtu zaidala. Sentitzen diat, Jon. Beharbada ertzean laban egin eta amildegitik erori hintzenean. Nik kontrako amildegira jauzi egin nianean kontrapisua egiteko, sekulako kolpea hartu nian lepoan. Balitekek kolpearen ondorioz pizgailua matxuratu izana. Pff, dagoeneko berdin ziok, baina hemendik agudo irten beharra zaukaagu. Ostean, gureak egin duk, Jon.

—Bai. Portzierto, Xabi, eskerrik asko. Atzo zuhur ibili hintzen. Higatik izan ez balitz, honezkero biak zerraldo eroriko gintuan.

—*Mierda*, Xabi, dagoeneko ez diat ezker eskua sentitzen. Ez diat deus esan, baina, atzo amildegitik erori nintzenean eskularru bat kendu behar izan nian maniobrak egiteko eta harrezkero ez zaukaat sentsibilitaterik.

—Lasai, Jon. Hurbildu gaitezen elkarri bero apur bat emateko, eta har dezagun ordu batzuetan atsedean. Ah, eta, Jainkoarren, sar ezak esku hori jaka barruan, bestela galdu egingo duk eta.

—Bai... momentu honetan ez diat martxan jartzeko adorerik. Xabi, kanpalekutik urrun gaudela uste al duk? Agian Mikel eta Fermin gure bila zebiltzak.

—Ez zekiat, Jon... oraingo honetan bakar-bakarrik gaudela uste diat. Begiak itxi itzak, baina ez gehiegi, badaezpada ere.

III

Baikorrak ez bagara ere, argi dugu gure lagunak aurkitzeko saiakera on bat egin behar dugula, bada, horretarako Dunagiriko tontorretik jaisteko erabili ohi den bidetik igotzea erabaki dugu; *Japoniarren Ertza* izeneko bidetik, hauek izan baitziren bide hori eskalatu zuten lehenengoak. Bestalde, Jonek eta Xabik bide horretatik jaisteko asmoa zutela aitortu ziguten. Beraz, lehenago edo berandago gure lagunak aurkituko ditugula badakigu.

Ez dugu eguraldi apartarik, behe lainoak dira nagusi, eta tarteka eguzki printzek gure aurpegi arrailduak berotzen dituzte. Edozelan ere, giro ona dugu, mendian gora egiteko modukoa. Luzez ibili gara Fermin eta biok, beldurrez, jakitun han nonbait gure lagunak gorpuak aurki genitzakeela. Eta hantxe, urrutian, 6.000 metrotik gora irudi bi antzeman ditugu uzkuertuta elurak eskainitako babesgune natural batean. Momentuan sekulako poza hartu dugu, baina ez dugunez bat-bateko agurrik jaso, lehen aipatutako mamu guztiak brastakoan etorri zaizkigu.

ERDIBIDEAN

Edurne Pasaban

*Egizu barre,
horrek pertsonak nahasten ditu eta!*

Nepaleko esakunea

Joder, Edurne, hemendik irten beharra duzu, zelan edo halan, baina ezin zara zubi honen erdian gelditu. Zer egin dezaket, ordea? Militar txinatarrak konbentzitzea latza izan da, Zhangmu hirikoak bereziki nardagarriak dira euren alkohol eta kontrabandoko tabako usain nazkagarriarekin, baina, kontuz, nepaldarrak tematiak eta burugogorrak dira oso. Ez dut berriz ere erreguka aritu nahi nepal-darrekin, nahikoa izan dut koronel txinatar horrekin. Baina zelan konbentzitu ditut memelo hauek ni euren mugetatik pasatzen uzteko? Atzamarrak horrela izanda, izoztuta eta belztuta, gorantza begira jarrita nekrosiak aurrera egin ez dezan, premiazkoa duzu Katmandura hainbat arinen heldzea, handik Euskal Herri hanka egiteko.

Ea zenbait atzamarren ebakuntza saihestu dezakezun, Edurne. Tira, Zaragozako medikuak nahiko kontserbadoreak dira, ez omen dira bisturi zaleak. Agian elektrodo, ur kontraste eta fisioterapiarekin nahikoa duzu.

Et, et, et, *suabe*, Edurne, ez zaitez aurreratu. Lehenengo, Tibet¹¹ eta Nepal bereizten dituen zubi zantar hau –paradoxikoki “Adiskidetasunaren zubia” deitua– zeharkatu beharra duzu. Agudo gainera, ez zaizu komeni kale gorrian lo egitea, jakin badakizu lo-zakurik beroenak ere nekez berotuko zaituela gaur-

koan. Kaka zaharra, orain elurretan hasi behar du, ala? Ona zaude ba, potxua. Ea ba, ekar itzazu anpuluak begietara, Edurne, has zaitez pentsamendu tris-teak burura ekartzen, *cagando leches* gainera!, ea horrela nepaldar militarren bihotzak bigun ditzakezun. Ez, ez, ez, mendian galdutako lagunaren aurpegiak ez, kontua ez da drama bat egitea, ezta? Holaxe bai, etxekoen aurpegi gozoak, euren irribarreak gogora ekartzeak beti hunkitzen nau. “Ama, laster noa, itxaron nazazue etxeko atarian”.

Oso ondo, Edurne, orain atera ezazu zapia eta igurtz ezazu begi ingurua eta sudurra, lagun lezake eta; segi Edurne, eta *aurrera bolie*, aduana gaindituz gero, Katmandura eramango zaituen taxia zain izango duzu.

II

1998ko denboraldian, hogeita gutxi urte zeuzkala, Dhaulagiri mendia hiru alpinista italiar ezagunekin eskalatzeko beta izan zuen Edurnek. Tira, eskalatzeko ez ezik, Himalaiatz bere osotasunean gozatzeko aukera ere izan zuen. Ez zen lehenengo aldia, ordea. Horrelako espedizioetan, materiala, logistika eta gogoak partekatzeaz landa, inguruko herrialdeek euren mendietan eskalatzeko banatzen dituzten baimenak ere elkar banatzen dira.

Bai, Himalaian barrena murgiltzeko, eta hango mendirik preziatuenetako tontorrek zapaltzeko, ezinbestekoa da baimen edo bisa bereziak izatea; alegia, ez da Txindokira, Beriainera edo Anbotora joatea bezala. Azken batean, inguruko herrialdeek mendebaldeko mendizaleen abenturetan abagunea aurkitu zuten aspaldi, eta geroztik diru sarrera itzelak dituzte mendiko turismoari esker.

Ondo egiten dute, zer demontre! Euren mendien subiranotasuna ere kendu nahi al genien, ala?

Hala, 1998ko espedizio hartan Edurne eta bere lagun italiarrek inguruko mendiek eskaintzen zituzten erronka amaigabeekin amets egiteko aprobetxatu zuten, eta Dhaulagiri mendiko kanpaleku nagusitik, munduko mendirik erraldoiena begiz jo zuten; Everest mendia 8.848 metroko garaierakoa. Horrela, bada, 1999ko udaberrian menditzarra eskalatzeko planak egin zituzten.

Esan eta egin. Dhaulagiriko bidaiatik heldu eta gutxira, martxan jarri ziren. Urte osoa egin zuten logistika antolatzen eta xehetasunak fintzen –bisak, materiala, bidaia agentzia, babesleak, bibliografia, argazkiak...–, dirua eta eskalada lerro guztiak aztertzen, erraldoi zuri hura menderatzen lagun ziezaiekeen bidea aurkitu nahian. Azkenean, Everesteko ipar isurialdetik eskalatzen saiatzeak tontorrera heltzeko aukera dezente eskain ziezaiokeela begitandu zitzaion nazioarteko espedizioari.

11. Txinak legez kanpo menderatutako herrialdea.

ASKE

Iñi Basterra

“Ametsik gabeko bizia, izarrik gabeko gaua”

Euskal esaera zaharra

Kanpezun, 2023ko azaroaren 11n

Kaixo Iñi, aspaldiko!

Beharbada ez nauzu behar bezala ezagutzen, baina nik zu ondo ezagutzen zaitut; tira, ondo baino, primeran ezagutzen zaitut, izan ere, etorkizunetik idazten dizut. Bai, ez duzu gaizki irakurri, etorkizunetik, hau da, 2023ko Iñi Basterra iraganeko Iñiri idazten dabilkio. Aitortu behar dizut arraro samar egiten zaidala 80. hamarkadako neuri Ni gazteari idaztea, –zuri, alegia– baina, azken boladan bizi izandako gorabeherak direla eta, ba, zuri idaztera ausartu naiz.

Harrituta, ezta? Lasai, gutun honen helburua ez da zeure ibilbidea –nirea, azken finean– hankaz gora jartzea, edo bizitzan hartu beharko dituzun erabakiak baldintzatzea; ezta pentsatu ere. Gutun honen xedea Iñi gaztearekin –nirekin– hitz egitea da, besterik ez. Akaso, idazten nabilkizun bitartean, oroitzapen ederrak gogora ekarriko ditut, edota, gainera bada ere, etorkizun laburrean zer gerta dakizukeen ikusaraziko dizut. Lasai, ez dizut spoiler egingo, –2023. urtean modan dago oso berba hori–; bizitza bakarra dago, eta norberari dagokio ateak zabaltzen joatea, ez duzu uste? Penagarria litzateke etorkizuneko niak sentitzen duen nostalgiagatik gure patuaren nondik norakoak ezagutzea.

Honezkero pentsatzen hasiko zinen ez daukala zentzu handirik etorkizunetik idazteak, 2023tik, baldin eta iraganean bizitako komeria guztiak ezagutzen baldin baditut. Tira, zentzurik ez dakit, baina nire adinera heltzen zarenean, agian, antzeko zerbait egitea erabakiko duzu. Edonola ere, lasai, badakit ez zaizkizula paternalismoak gustatzen, inoiz ez dituzu gogokoak izan. Horregatik ba, bizitzari dagokionez ez dizut aparteko gomendiorik emango.

Lehenengo lerro eta asmo aspergarri hauek argi utzi eta gero, zugaratik, etxe-koengatik galdetu nahi nizuke. Zelan aita eta ama? Polito, ezta? Indiabeti base-rrira joan ohi zarete oraindik, bai? Datekin oker ez banabil, behintzat. Sarri ekar-tzen dut gogora Dimako baserri zahar hura, hantxe, bakarti, Leungane mendiaren magalen zaindari. Gogoan dituzu txiki-txikia zinenean etxe-koekin egiten zenituen txangoak? Eskubaratze-ko labirintoan barrena galdu ohi zinen sarri asko, aitaren oniritzia izan zein ez, noski, kar-kar-kar. Esan liteke gaur egun eskalatzaile bazara, Arratia haranean barrena egindako lehenengo txango eta kordelik ga-beko eskalada horiengatik dela, ezta? Tira, horiei eta gurasoek hamasei urtere-kin ordaindu zizuten lehenengo eskalada ikastaro horri esker; Atxarten 1985ean edo 1984an? Berdin dio, primeran pasatu zenuen Ander eta Jonekin. Esan dizut ba, ondotxo gordetzen ditut oroitzapen horiek altxor kutxa batean.

Eskaladari buruz berbaz hasi naizenez gero, aitortu behar dizut garaiak izu-garri aldatu direla. Bai, izugarritzko aldea dago 80-90. hamarkaden eta 2020. hamarkadaren artean. Gorago esan bezala, ez dizut etorkizunari buruz gehiegi idatzi nahi, zuk zeuk, bihar-etzi eta zeure kabuz, ikus eta ezagut ditzazun al-daketak. Hala ere, eta spoilerretan erori gabe, zuk bizi duzun garai horren mira dut. Jende askori gertatu ohi zaio helduarora iritsi orduko; atzera begira jarri eta joandako garaien hutsunea sentitu.

Tira, ez naiz sentimentaltasunetan eroriko, baina bai, hala da, gauza ederrak ekarri dituen arren, XXI. mendeak zure gazte denborako balio andana atzean utzi ditu. Gaur egun, tamalez, mendizaletasunarekin zerikusia duten balioak ere nahikotxo erkindu dira, eta nardagarriak begitantzen zaizkidan beste batzuk gailendu: kontsumismoa, egoa, mugikorrak eta, orokorrean, “zarata” nagusi dira gaur egun eskalada guneetan. Bada, zentzu horretan, inbidia pixka batekin idaz-ten dizut etorkizunetik, Iñi.

Nik, behintzat, beste era batera oroitzen dut gaztaroa. Alegia, 90. hamarka-daren atarian egonik, ez al zarete zorientsuak ondasun gutxiarekin zu eta zure lagunak? Tira, bai, badakit, batzuetan gorriak ikusten dituzue ametsak egia bi-hurtzeko: Verdonera edo Riglosa egindako bidaia luzeetan behar adina gaso-lina lortzeko, eskalada materiala erosteko, aldizkari bilduma duina sortzeko... sikiera? “Dena denona” premisa nagusi da zuen artean, ezta? Alegia, lagunekin eskuzabala ez izatea ez da aukera bat. Lasai, kapitalismo berekoia- ren gozokia eskura izango duzue behin baino gehiagotan, orain, bihar eta beti.

Hala ere, gauza bat esango dizut Iñi, diru gutxiarekin bada ere, gauza izugarriak egiteko gai zarete 1989an, eta gai izango zarete. Bada, segi horrela, segi fuerte!

Tira, etorkizunetik luzatutako sekretutxo bat gordetzeko gai baldin bazara, esan behar dizut oraintsu sortu duzun Txurdinagako tuneleko rokodromoak bi-zirik dirauela gure artean 2023. urtean. Badiotsut, zuk, Kongik, Nandok, Gardea-